**UDALBATZAK 2017KO OTSAILAREN 28AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko otsailaren 28ko arratsaldeko 16:15 zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ (Orereta/Errenteriako EHBildu) alkate jaunaren esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira:

***Orereta/Errenteriako EHBildu***

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Itziar OSTOLAZA GALDÓS
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

***Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos***

- Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA
- María Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- María Teresa AZPILICUETA LLORENTE
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Montserrat LUIS CANO
- Iñaki RUIZ ALONSO

***Errenteria IrabaziZ***

- Yon COLLAR RIOSECO
- Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
- Nagore BASURTO ESCAMILLA
- Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA DE PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 28 DE FEBRERO DE 2017**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 16:15 horas del día 28 de febrero del año dos mil diecisiete, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Julen MENDOZA PÉREZ (Orereta/Errenteriako EHBildu), los siguientes Concejales:

***Orereta/Errenteriako EHBildu***

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Itziar OSTOLAZA GALDÓS
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

***Euskal Sozialistak-Socialistas Vasco***

- Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA
- María Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- María Teresa AZPILICUETA LLORENTE
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Montserrat LUIS CANO
- Iñaki RUIZ ALONSO

***Errenteria IrabaziZ***

- Yon COLLAR RIOSECO
- Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
- Nagore BASURTO ESCAMILLA
- Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

***EAJ/PNV***

- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Manuel FRANCO INSAUSTI
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore SARASOLA OTERMIN idazkari nagusia.

Era berean, bertan dago Mª José SANCHEZ PLAZA udal kontu-hartzailea.

**1. Udalbatzak 2017ko urtarrilaren 31n eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion akta irakurri eta, egoki bada, onartzea.**

Idazkariak irakurri du 2017ko urtarrilaren 31n ko ohiko bilkuraren akta.

Oharrik gabe onartu da.

**2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak eta Zinegotzi-ordezkarienak, 195 zk.tik 556 zk.ra, (biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**3. Berri ematea: Kontuhartzailetzako txostenak.**

Ondokoa jakinarazi da:

***EAJ/PNV***

- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Manuel FRANCO INSAUSTI
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

Asiste y da fe del Acto, la Secretaria General Nagore SARASOLA OTERMIN.

Igualmente asiste la Interventora Municipal Mª José SANCHEZ PLAZA.

**1. Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión ordinaria del 31 de enero de 2017.**

Leída por la Secretaria el acta correspondiente a la sesión ordinaria del 31 de enero de 2017.

Se aprueba sin observación alguna.

**2. Cuenta de Resoluciones del Alcalde y de Concejales Delegados, nºs. 195 al 556 (ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.**

El Pleno queda enterado.

**3. Dar cuenta: Informes Intervención.**

Se da cuenta del siguiente:



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**AURREKONTUAREN ALDAKETAK.**
**KONPROMISO KREDITUA 2017KALD000001-00**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**MODIFICACION PRESUPUESTARIA.**
**CREDITO DE COMPROMISO 2017000001-00**

El Pleno queda enterado.

**4. Orereta/Errenteria EHBilduk, Errenteria IrabaziZek eta EAJ/PNV alderdiak babestutako mozio herritarra.**

Ondoko mozioa irakurri dute:

"ERRENTERIA-ORERETAN martxoaren 19rako deitu den herri galdeketaren aldeko babes-aldarria

Plataforma sozial anitz eta ireki batek bultzatuta, martxoaren 19an gure udalerrian, Euskal Herriko beste askotan bezala, instituzioekiko loteslea ez den eta Erabakitzeko Eskubidearen alorrean kokatua dagoen herri galdeketa bat gauzatuko da.

Berez ariketa txalogarria dela uste dugu, pedagogia demokratikoaren eta kultura demokratikoaren sakontzearen esparruan daukan ukaezinezko balioagatik.

Iraganeko oztopoak gainditu nahi dituen egungo egoerak oraingo proposamena esperantzaz hartu beharko luke. Edozein aukera politikoren gauzatze askea sozialki zilegitzat hartzea herritarren elkarbizitza demokratikoaren oinarria da, pertsona oro eskubidez berdintzen baitu, gehiengoen jokoaren menpe eta hartarako erabilitako bideen zilegitasun demokratikoa muga bakarra izanik.

**4. Moción ciudadana suscrita por Orereta/Errenteria EHBildu, Errenteria IrabaziZ y EAJ/PNV.**

Leída la siguiente moción:

"Declaración de apoyo a la consulta ciudadana convocada en ERRENTERIA-ORERETA para el 19 de marzo

Impulsada desde una plataforma social plural y abierta, el día 19 de marzo se llevará a cabo en nuestro municipio, como se viene haciendo en otros muchos de Euskal Herria, una consulta popular no vinculante institucionalmente, situada en el marco del Derecho a Decidir.

Entendemos que se trata de un ejercicio plausible en sí mismo por su incuestionable valor en el ámbito de la pedagogía democrática y de la profundización en la cultura democrática.

Un escenario como el actual, que pretende superar el lastre del pasado, no puede sino acoger con esperanza una propuesta como la presente. Legitimar socialmente la libre materialización de cualquier opción política, sometida al juego de las mayorías y sin más límite que la legitimidad democrática de las vías utilizadas para ello, es la base de una convivencia democrática de la



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

ciudadanía igualando en derecho a cada una de las personas.

Bestalde, proposamena gurea bezalako jatorria duten auzien konponbidea bilatzen duten korronte europarrekin bat dator, besteak beste Eskozia Erresuma Batuari dagokionean, Europako Batasunean, zein Balkanetako edo Baltikoko zenbait estatu berri.

La propuesta enlaza por otra parte con corrientes europeas de resolución de litigios de naturaleza similar a la nuestra, caso de Escocia en relación a Reino Unido, en la Unión Europea, o de los nuevos estados de la costa báltica o la península balcánica entre otros.

Halaber, frankismoaren aurkako garaian garatutako aldaketa-itxaropen zilegiei heldu behar dien fase politikoan dator, trantsizio delakoaren lehen unetako sableen mehatxuagatik etorkizunerako utziak izan baitziren, eta etorkizun hura dagoeneko orainaldia dugu.

Llega asimismo en una fase política en que toca abordar aquellas expectativas de cambio legítimamente gestadas en el anti-franquismo que, por la amenaza de los sables en los primeros tiempos de la llamada transición, quedaron relegadas al futuro, que ahora es ya presente.

Azkenik, gogoeta hauek gure herrian herritar gehienen babesa dutela uste dugu.

Entendemos finalmente que estas consideraciones cuentan con un respaldo popular mayoritario en nuestra villa.

Horrengatik guztiagatik, zera adierazi nahi dugu:

1.- Martxoaren 19an egingo den herri galdeketari gure babes osoa eman nahi diogu.

2.- Herriko hautesleei deitu nahi diegu egun horretan hautestontzietara joan daitezen, ekimenaren originaltasuna ikusita, demokrazian sakontzen eta oraingo eta geroko benetako elkarbizitza demokratikoa eraikitzen laguntzen ari delako uste eta konfiantza osoa ditugulako.

3.- Galdeketari babesa erakutsiko duen irudia lortzearren, 1979tik udalbatza honetan izan diren zinegotzi guztiei deitzen dien martxoaren 4ko hitzordura joateko asmoa dugu."

Por todo ello queremos manifestar:

1.- Nuestro apoyo a la consulta popular propuesta para el 19 de marzo.

2.- Nuestro llamamiento al electorado de la villa para que acuda ese día a las urnas, con la convicción y la confianza de que, desde la originalidad de la iniciativa, está contribuyendo a profundizar en democracia y a construir una convivencia democrática real para el presente y el futuro.

3.- Nuestra decisión de acudir a la cita fijada para el día 4 de marzo, en la que se convoca a todos los cargos municipales habidos en este consistorio desde 1979, a fin de propiciar una imagen de apoyo



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

a la consulta.”

Hauek mintzatu dira.

* Publikotik hitza hartu du Xabier Oleaga Arondok Gure Esku Dagoren izenean. Mozioaren testua ezagutzen dute bertaratutako guztiek eta ez da mamian sartuko. Azalpen bezala esan nahiko luke gaurkoa bezalako ekimen bat hemen aurkeztearen arrazoia dela ekimen hori berez izaera eta jatorri sozialeko ekimena izatea, eta bilatzen du sektore sozial eta instituzional ahalik eta zabalenen atxikimendua. Horrek garrantzi handia dauka, nahiz eta osoko bilkura arrunt batean aurkezten den, ulertzen dute bere garrantzia duela batez ere Espainiako ikuspegitik begiratzen dutenentzat, estatuaren ikuspegitik begiratzen dutenentzat, demokrazian sakontzeko modu bat delako; eta euskal ikuspegitik begiratzen dutenek etorkizuneko euskal demokraziaren oinarrietako bat mota honetako edo eduki honetako ekimenetatik garatzen joango direlako. Hori da honen inguruan egiten duten kontsiderazioa, eta eskatzen dutena da aurkeztu duten ekimenarekiko atxikimendua. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiete orain arte aurkeztu dutenean jaso duten atxikimenduagatik, eta segur aski gaur ekimen honi ezezkoa emango dietei ere bai; nahiz eta ezezkoa izan gaurko erantzuna, ez dute esperantza galtzen denborarekin demokrazian sakonduz goazen heinean haiek ere momenturen batean atxikimendua emango dutela. Eta horren gainetik beren etsairik handiena indiferentzia delako. Ezezkoa ematen dutenek ere ekimen honekiko indiferenteak ezin izango dute izan. Eskerrak eman dizkie guztiei, eta itxarongo dute bozketaren emaitza ikusteko.

Se producen las siguientes intervenciones.

* Interviene desde el público en euskera Xabier Oleaga Arondo en representación de Gure Esku Dago. Ya se conoce por los presentes el texto de la moción, por lo que no va a entrar en la esencia de la misma, pero como explicación decir que la razón de presentar hoy esta moción aquí es que se trata de un acto de carácter y origen social que busca la máxima adhesión de los sectores sociales e institucionales. Tiene mucha importancia aunque se presente en un Pleno ordinario, y la tiene porque para los que miran desde España, con un punto de vista estatalista, es un modo de profundizar en la democracia, y para los que miran desde Euskadi, es una de las bases de la democracia futura de Euskadi que se irá desarrollando con este tipo de iniciativas. Esta es la consideración que hacen y lo que piden es la adhesión a esta iniciativa. Además, quieren agradecer la acogida recibida a la hora de presentar la moción y agradecer también a quienes hoy seguramente votarán en contra de la misma, porque a pesar de ello, no pierden la esperanza de que con el tiempo, en la medida en que se vaya profundizando en la democracia, en algún momento también muestren su adhesión. Y aun por encima de esto, porque el mayor enemigo que tienen es la indiferencia y ya, tampoco los que voten en contra podrán ser indiferentes a esta iniciativa. Por tanto, gracias a todos y esperarán a ver el resultado de la votación.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

* Oiarbide andreak (EAJ/PNV) euskaraz adierazi du Euzko Alderdi Jeltzalea bere sorreratik abertzalea izan dela, hau da, Euskadi, Euskal Herria edo erabil daitekeen beste edozein adierak islatzen duen errealitate bat aldarrikatu du. Errealitate nazional bat gara eta izan gara eta ziurrenik, izango gara; gure hizkuntza, gure kultura, gure izaera eta gure nahiekin. Errealitate horren existentzia ezin da ukatu eta errealitate hori galdeketa bat egiteko nahikoa justifikazio dela iruditzen zaigu. Baina abertzaletasunetik haratago, bakoitzak bozkatuko duenetik haratago, bozkatzea bera da garrantzitsua, herriari bere antolatzeko era erabakitzeko eskubidea aitortzea; azken finean, herri baten etorkizuna, herritarren esku dago eta. Bide luzea egin dugu euskaldunok burujabetzaren bila, 1932an Agirre Lehendakariak autodeterminazioaren aldeko aldarrikapena egin zuenetik. Trantsizioan lortutako autogobernu mailak, garai hartako testuinguruan ulertu beharrekoak, ukaezinezko aukerak ekarri dizkigu herri bezala, gure hizkuntza, kultura, ekonomia, ongizatea eta abar indartzeko aukera eman digu dudarik gabe, nahiz eta hainbeste urteren ondoren, oraindik ere erabat bete ez den. Urte eta bizipen ugari pasa dira geroztik, tartean, Ibarretxe Lehendakariak euskaldunon izenean aurkeztutako estatutu berria, Espainiar Estatuaren ezezko borobila jaso zuena. Geroztik ezagutu dugu zenbait aldiz hain urrun ikusten genuen biolentziaren desagerpena ere. Testuingurua aldatu da urte guzti hauetan beraz, baina aldatu ez dena, herri baten nahia eta eskaria dira. Askok aldarrikatzen genuen eta aldarrikatzen dugu burujabetza eta aldarrikapen horiek ez dira desagertuko herria herri sentitzen den bitartean. Hori da behintzat guk egiten dugun gogoeta eta oker ala zuzen gauden jakiteko era bakarra herriari galdetzea

* Interviene en euskera la Sra. Oyarbide (EAJ/PNV) manifestando que, el Partido Nacionalista Vasco ha sido abertzale desde sus orígenes, esto es, ha reivindicado Euskadi, Euskal Herria o cualquier otra acepción que lo refleje. Somos, hemos sido, y seguramente seremos una realidad nacional, con nuestra cultura, nuestro carácter y nuestros deseos. No se puede negar la existencia de esa realidad, realidad que nos parece suficiente para celebrar una consulta. Pero más allá del nacionalismo, más allá de lo que cada uno vote, lo importante es votar, reconocer el derecho a organizarse y a decidir del pueblo, al fin y al cabo, el futuro del pueblo está en manos de la ciudadanía. Los y las vascas hemos hecho un largo camino en busca del soberanismo desde que en 1932 el Presidente Agirre hiciera la proclamación a favor de la autodeterminación. Los niveles de autogobierno conseguidos en la transición, que es necesario entenderlos en aquel contexto, han traído posibilidades innegables a nuestro pueblo, nuestro lengua, cultura, economía, nos han dado sin duda la posibilidad de mejorar el bienestar aunque después de tantos años no se haya completado totalmente. Han pasado muchos años y vivencias desde entonces, entre ellas, el nuevo estatuto presentado en nombre de los euskaldunes por el lehendakari Ibarretxe, que recibió la negativa rotunda del Estado Español. Hemos conocido la desaparición de la violencia que entonces se veía tan lejana. Por tanto, en estos años ha cambiado el contexto, pero lo que no ha cambiado es el deseo y la demanda de un pueblo. Muchos reivindicábamos y reivindicamos el soberanismo, y esas reivindicaciones no desaparecerán mientras el pueblo se sienta pueblo. Esa es la reflexión que nosotros al menos hacemos y la única forma de saber si estamos o no en lo cierto

da, ariketa demokratikoagorik ez dago, nahi bat azaldu duen herri bati hitza ematea. Martxoaren 19ko galdeketa ez da noski loteslea eta ez du egun horretan erabakitakoak gure errealitate nazionala aldatuko, baina galdeketa sinbolikoa den heinean, emaitzatik haratago, garrantzitsuena ez baita emaitza, galdetzea bera zilegi dela argi utzi nahi du. Horregatik, Errenteriako eta Oarsoaldeko herritarrak, oro har, animatu nahi ditugu, galdeketa honetan, jai giroan eta demokraziaren ospakizun bezala parte hartzera, beraien bozka aldekoa edo kontrakoa izan, bakoitzaren ikuspegi eta nahi ezberdinetatik, garrantzitsua baita bozka bera. Eta hau guztiagatik, noski, mozioari gure aldeko bozka emango diogu.

es consultárselo a la ciudadanía, no hay ejercicio más democrático que dar voz a un pueblo que ha expresado un deseo. La consulta del 19 de marzo no es vinculante y lo decidido ese día no cambiará nuestra realidad nacional, pero en la medida en que la consulta es simbólica, más allá del resultado, porque el resultado no es lo más importante, quiere dejar claro que es lícita la propia consulta. Por eso queremos animar a la ciudadanía de Errenteria y Oarsoaldea en general, a participar en la misma en ambiente festivo y como celebración democrática, bien sea su voto a favor o en contra, cada cual desde su punto de vista y desde su voluntad, ya que la propia votación es lo importante. Y por todo esto, desde luego su Grupo votará a favor de la moción.

* Collar jaunak (Errenteria IrabaziZ) adierazi du Espainiako estatua, historiako, hizkuntzako eta kulturako hainbat arrazoirengatik plurinazionala dela, nahiz eta egungo egitura politikoek ez hala aitortu, eta badirudien etorkizun hurbilean ere ez dutela aitortu nahiko. Errealitate plurinazional hauek beren etorkizun politikoa erabakitzeko duten nahia geroz eta bistakoagoa da, eta herritar gehienen borondatea bere baitan hartzen dute. Gizarte demokratikoen oinarrizko eskubide besterenezinen artean dago bere etorkizun politikoa erreferendum bidez erabakitzea. Duela hilabete inguru esan zuen Manuela Carmenak (gaztelaniaz): *"la esencia de la democracia es la participación de todos y todas"*, ez da beldur izan behar herritarrek beren borondatea hauteslekuetan adieraz dezaten, ez lau urtero soilik erakundeetako ordezkariak aukeratzeko, baizik herritarren egunerokoari, ongizateari eta beharrei eragiten dion edozein erabaki garrantzitsu hartzerakoan. Ez dugu ahaztu behar Espainiako egungo marko juridikoak,

* Interviene el Sr. Collar (Errenteria IrabaziZ) manifestando que El Estado Español, el cual por innegables razones de historia, lingüísticas y culturales, es plurinacional a pesar de que sus actuales estructuras políticas no lo reconozcan así, ni parece que lo quieran en un futuro cercano. El deseo de estas realidades plurinacionales de decidir su futuro político se ha hecho cada vez más evidente, que acoge la voluntad de gran parte de la ciudadanía. Entre los derechos esenciales e inalienables de las sociedades democráticas estaría el de decidir su futuro político mediante referendum en cuestiones esenciales. Hace apenas un mes ya lo dijo Manuela Carmena: *"la esencia de la democracia es la participación de todos y todas"*, no se debe tener miedo a que la ciudadanía se exprese mediante las urnas, no solo cada cuatro años para decidir los y las representantes en las instituciones, sino en cualquiera de las deciciones de calado que afecten directamente al día a día, al bienestar o

zuzenbide konstituzionaleko adituek defendatu duten moduan, aukera ematen duela erreferendumak egiteko estatuarekin adostuta. Aukera hori orain arte ez bada zabaldu izan da Espainiako estatuko gobernuen borondate politiko faltagatik. Hori dela-eta, zuzenbidea, definizioz, hainbat modutan interpreta daiteke, eta ulertu behar da arazo politikoei konponbide demokratikoak topatzeko modu gisa, eta ez berriak sortu eta daudenak okertzeko. Ondorio guztietarako, erreferenduma ulertzen dugu sakontze demokratikoko tresna pribilegiatu gisa, aukera ematen duena eztabaida politiko plurala egiteko, adostasunak bilatzeko eta, azkenean, akordio eraginkorrak hartzeko. Erreferendumak tresna inklusiboa izan behar du, aukera ematen duena errealitate plurinazional desberdinetako herritarrek Espainiako estatuarekiko harreman politikoaren inguruan dituzten jarrera desberdinak libreki adierazteko. Kultura demokratikoak konponbide politikoak eskatzen ditu herritarren eguneroko errealitateari eragiten dieten arazo politiko territorial nahiz estrukturaletarako. Hori artikulatu beharko litzateke gizarte modernoek badituzten oinarrizko tresnen bitartez: herriaren gehiengoaren borondatea ezagutzea eta balidatzea; borondate hori botoarekin adierazten du. Erreferendumak edo erreferendumek bide eman behar dute pertsona orok senti dezan parte hartzeko deia egiten diotela, beldur izan gabe hautestontziak atera eta herritarrei galdetzeko erabakitzeko eskubidearen berri hainbat arlotan. Zergatik ez atera hautestontziak errausteguiagatik ere?, TTIP eta CETA tratatuengatik?, Europar Batasunetik eta NATOtik irteteagatik edo monarkiagatik?, zergatik dira hain beldur herritarrei beren iritzia adierazteko aukera emateko? Borroka dezagun libreki adierazteko aukera izan eta

necesidades de la ciudadanía. No nos olvidemos, que el actual marco jurídico español, tal y como han defendido expertos en derecho constitucional, permite la realización de referendum acordados con el Estado.Si esta posibilidad no se ha abierto hasta ahora, ha sido por la falta de voluntad política de los diferentes Gobiernos del Estado español. Es por ello, que el Derecho, por definición, es susceptible de interpretaciones diversas, ha de ser entendido como instrumento para encontrar soluciones democráticas a los problemas políticos y no para crear nuevos o agravar los existentes. A todo sus efectos entendemos el referendum como un instrumento privilegiado de profundización democrática, que permite el debate político plural, la búsqueda de consensos y la adopción final de acuerdos eficaces. El referendum debe ser un instrumento inclusivo, que permitirá la libre expresión de las diversas posiciones que la ciudadanía de las diferentes realidades plurinacionales han expresado respecto a la relación política de estas con el Estado español. La cultura democrática reclama más soluciones políticas a los problemas políticos tanto territoriales como estructurales que afecten a la realidad cotidiana de la ciudadanía. Esto debiera articularse mediante mecanismos fundamentales del que disponen las sociedades modernas: el conocimiento y la validadación de la voluntad mayoritaria del pueblo que se expresa con el voto. El referendum o los referendums han de propiciar que todo el mundo se sienta llamado a participar, sin temor a sacar las urnas y solicitar a la ciudadanía su derecho a decidir en los diferentes ámbitos... ¿ Por que no sacar las urnas también por la incineradora?, ¿por los tratados del TTIP y Ceta?, ¿por la salida de la Unión Europea o la OTAN, o por la Monarquía?, ¿por qué hay tanto



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

demokrazia zuzenean eragiteko aukera izateagatik, azken batean eskubideez gabetu gaituztenok mundua baitugu irabazteko. Eta eskubide horiez gabetu gaituztenez, mozio honen alde bozkatuko dugu.

miedo a dejar expresarse a la ciudadanía?. Luchemos por tener la oportunidad de poder expresarnos libremente y poder incidir en una democracia directa, porque al fin y al cabo los desposeidos tenemos un mundo por ganar. Y como desposeidos de esos derechos votaremos a favor de esta moción.

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du PSE-EE, bistakoa denez, ez dagoela ados fundamentazio pseudojuridiko horrekin. Bere ustez, indar politikoren batek eskatzen badu gure ordenamendu juridikoan sartzeko legezko bide bat Espainiako autonomia-erkidego batek aukera izan dezan banandu eta Estatu bereizi bat eratzeko, gizarteari argi eta garbi esan behar dio, itzurbide terminologikorik gabe. Laburbilduz, juridikoki ez da existitzen "erabakitzeko eskubidea". Benetan aitortutako eskubide gisa aipatzeak suposatzen du politikoki iruzur gisa erabiltzen den irudi faltsu bat sortzea, adierazteko Espainiako sistema konstituzionalak ukatzen duela ordenamendu juridikoan dagoen zerbait. Ikuspegi demokratikotik joko hori ez da inola ere onargarria. Erreklamatzen dena da autonomia-erkidego batek kontsultako erreferendum bat deitu ahal izatea, hori deitzen duenak Konstituzioa edo Estatutuak aldatzeko proposamena egin behar du. Baina horretarako onartu behar da egungo legezkotasuna eta hori aldatzeko prozeduraren legezkotasuna.

* Interviene el Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manfiestando que El PSE-EE, evidentemente, no comparte esta fundamentación pseudojurídica. Consideramos que si alguna fuerza política demanda la inclusión en nuestro ordenamiento jurídico de una vía legal por la que una comunidad de España pueda escindirse y constituir un Estado separado, debe exponerlo a la sociedad de forma abierta y clara, sin subterfugios terminológicos. En resumen, jurídicamente no existe el "derecho a decidir". Hablar de él como un derecho realmente reconocido supone crear una imagen falsa que se utiliza políticamente de forma fraudulenta, para transmitir que el sistema constitucional español niega algo que existe en el ordenamiento jurídico. Desde un punto de vista democrático resulta inadmisible semejante juego. Si lo que se reclama es la posibilidad de que una Comunidad Autónoma pueda convocar un referéndum consultivo, quien lo hace debe proponer las reformas constitucionales o estatutarias correspondientes para poder llevarlo a cabo. Pero esto sólo puede hacerse a partir de la aceptación de la legalidad actual y de los procedimientos para su reforma.

* Karrikiri andreak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz arratsalde onak eman dizkie guztiei, eta bereziki mozioa aurkeztera etorri direnei, eta

* Interviene en euskera la Sra. Karrikiri (Orereta/Errenteriako EHBildu) saludando a los presentes y en especial a quienes han venido a



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

eskerrak ere eman dizkie. Zalantzarik gabe, EHBilduko kideok babes osoa helarazi nahi diogu Gure Esku Dago ekimen herritarrak proposatutako babes-aldarriari. Martxoaren 19rako erronka handia proposatu diguzue eta gu alboan izango gaituzue, egunean bertan zein bidean. Herrien etorkizuna herritarrok erabaki nahi dugu, herritarron esku egon behar da. Hori da gure nahia eta gauzatu egin nahi dugu. Erabakitzea demokrazia baita, demokrazia besterik ez. Eta Gure Esku Dago elkargune bat da, orube konpartitu bat, balore demokratikoetan sostengatua, kultura politiko berri batekin. Angel Oiarbideren (Gure Esku Dago mugimenduaren bozeramailearen) hitzak dira hauek, pasa den hilabetean Europako Parlamentuan esandakoak. Eta halaxe da. Herri bat gara, bai. Eta erabakitze eskubidea dugu. Printzipio demokratikoa delako erabaki ahal izatea. Gu gara (Herritarrak dira) bizitzaren protagonistak; gu gara (Herritarrak dira) buruaren jabe izan nahi dugunak. Eta gure bizitzari zuzenean eragiten dioten erabakiak hartu nahi ditugu. Horretarako herritarron garaia da. Eta Kursalean Artur Masek esandako hitza hona ekarriz, beharrezkoak dira "Batasun politikoa eta mobilizazioa. Instituzioek bakarrik ez dute Estatua garaitzeko indarrik". Argi dugu herria dela protagonista prozesu honetan, Katalunian bezala, Euskal Herrian ere. Baina, argi dugu baita ere, instituzioen laguntza eta bultzada beharrezkoak izango direla kultura demokratikoan sakondu eta erabakitze eskubidean aurrera egiteko. Momentu hau aprobetxatu nahi du Kataluniako herriari gure elkartasunik beroena helarazteko. Une honetan eredugarria da egiten ari diren bidea. Ariketa demokratiko baten aldarriak batu ditu herritarrak, eta instituzioek herriaren borondatea babestu eta

presentar la moción, dándoles las gracias por hacerlo. Continúa señalando que, sin duda, los miembros de EHBildu quieren dar su apoyo a la iniciativa popular propuesta por Gure Esku Dago. Nos habéis propuesto un gran desafío y nos tendréis a vuestro lado tanto ese día como en el camino. La ciudadanía quiere decidir el futuro de los pueblos, que debe estar en manos de la ciudadanía. Ese es nuestro deseo y queremos cumplirlo. Decidir es democracia, nada más que democracia, y Gure Esku Dago es un punto de encuentro, un solar compartido, sostenido sobre valores democráticos con una cultura política nueva. Angel Oiarbide (portavoz del movimiento Gure Esku Dago) el mes pasado, en el Parlamento Europeo dijo las siguientes palabras, que son una gran verdad: somos un pueblo y tenemos derecho a decidir, porque el poder decidir es un principio democrático. Nosotros somos (el Pueblo es) protagonistas de nuestra vida, nosotros somos (el Pueblo es) quienes queremos ser dueños de nuestro futuro. Queremos tomar las decisiones que afectan a nuestras vidas y para ello, ahora es el momento de la ciudadanía. Y trayendo aquí las palabras que Artur Mas pronunció en el Kursal, "son necesarias la unidad política y la movilización, las instituciones por sí solas no tienen fuerza para vencer al Estado". Tenemos claro que el pueblo es protagonista en este proceso, como en Cataluña, en Euskadi también. Pero también tenemos claro que la ayuda y el apoyo de las instituciones serán necesarias para profundizar en la cultura democrática y avanzar en el derecho a decidir. Queremos aprovechar esta oportunidad para hacer llegar a Cataluña nuestra mayor solidaridad. En este momento el camino que están recorriendo es ejemplar. Un ejercicio de democracia ha unido a la ciudadanía y las



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

praktikara eramateko hautua egin dute. Hilabete hauetan zehar gertatzen dena gertatzen dela, ondoan izango gaituztela helarazi nahi diegu ere. Kultura demokratikoan sakondu eta independentziaren alde hautua egiten dugunontzat, herriari burujabetza ematea da eskatzen dugun bakarra, eta herriaren hitza errespetatua izatea. Guk baiezkoa bozkatuko dugu. Justizia sozialean eta demokrazian oinarrituko den gizarte bat eraikitzeko beste modurik ez dugulako. Beraz, martxoaren 19an Errenteria-Oreretan burutuko den herri galdeketa erabat legitimoa babestu nahi dugu eta gure eskuak eskaini eta eskerrak eman, egunetik egunera gero eta indartsuago eta anitzagoa den mugimendu honi. Bukatzeko, Angel Oiarbidek esaten duen bezala, “has gaitezen gauza txikiak egiten, denen artean zerbait handia osatzeko”.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du ez duela gai honekin polemizatzeko inolako asmorik, besteak beste, ados dagoelako mozioa aurkeztu denean egin den adierazpenarekin, alegia, lehenago edo geroago azkenean guztiok babestuko dugula. Bere ustez ariketa demokratikoa da. Baina esatea ez dela eskubidea... Badaude esperientziak beste leku batzuetan non eskubide bezala onartua izan den, horien artean Eskozian; oso gertu eta Europar Batasunean dagoena oraindik. Bestela ere badira beste adibide batzuk, Quebeckoa, adibidez, non ordenamendu juridikoa ez den arazo. Hori aipatu du askotan esaten delako ordenamendu juridikoa dela arazoa, prozedurak direla arazoa, eta arazoa ez dago hor, arazoa da subiranotasuna non ematen den. Batzuk uste dugu erabakitzeko eskubide edo burujabetza hori ematen dela kolektibo batek edozein

instituciones han elegido defender y llevar a la práctica la voluntad del pueblo. Ocurra lo que ocurra durante los próximos meses, queremos decirles que nos tendrán a su lado. Quienes hemos elegido profundizar en la cultura democrática y luchar por la independencia, unicamente pedimos que se dé la soberanía al pueblo y se respete su palabra. Nosotros votaremos a favor porque la justicia social y la construcción de una sociedad basada en la democracia no tiene otro camino. Por tanto, queremos apoyar la consulta, totalmente legítima, que se realizará el 19 de marzo en Errenteria-Orereta, ofrecer nuestras manos y dar las gracias a este movimiento cada día más fuerte y más plural. Para terminar, tal y como dijo Angel Oiarbide “empecemos a hacer cosas pequeñas para conseguir, entre todos, construir algo grande”.

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifiesta en euskera que, no tiene ningún ánimo de polemizar, sobre todo porque está totalmente de acuerdo con las palabras de quien ha presentado la moción en el sentido de que tarde o temprano todos la acabarán apoyando, esto le parece un ejercicio democrático. Pero decir que lo que aquí se debate no son derechos, hay otros sitios en los que sí se han considerado como tales, entre ellos Escocia, que está muy cerca y se mantiene todavía en la Unión Europea. Hay otros ejemplos, como el de Quebec, donde el ordenamiento jurídico no es un problema. Dice esto porque muchas veces se comenta que el ordenamiento jurídico es el problema, que el procedimiento es el problema, pero eso no es así, el problema es saber dónde reside la soberanía. Algunos, como él, piensan que ese derecho a decidir, esa soberanía, se da en el

gauza erabaki nahi duen momentutik aurrera. Eta ados dago Errenteria IrabaziZen adierazpenarekin, alegia, gure bizitzan egunerokoan eman beharreko eskubidea dela, gai desberdinetan. Eta zehazki kasu honetan, marko politiko eta instituzionalari dagokion elementu gisa. Errespetu osoz, iruditzen zaio prozeduretara jotzea dela benetako arazoa ekiditea. Onartzea herri honek eskubidea duela bere etorkizuna erabakitzeko, guk geuk eta ez beste inork. Bere ustez hori da gakoa, eta ez prozedura, beste leku batzuetan ikusi baita kontu legalak gero gainditu egiten direla eta borondate demokratikoaren menpe geratzen direla.

momento en que un colectivo quiere decidir sobre algo. Está de acuerdo con la declaración de Errenteria IrabaziZ cuando dice que es un derecho que se debe dar en nuestra vida diaria, en diferentes asuntos. Y concretamente en este caso, en lo que corresponde al marco político e institucional, con todos los respetos, cree que recurrir al problema del procedimiento es de algún modo querer evitar el problema real. Se trata de asumir que la ciudadanía de este pueblo, y nadie más, tiene derecho a decidir su futuro. Cree que ahí está la clave y no en el procedimiento, porque en otros sitios se ha visto que las cuestiones del procedimiento se superan y quedan supeditadas a la voluntad democrática.

Amaitu dira mintzaldiak.

Finalizadas las intervenciones

Udalbatzak, aldeko 14 botoren gehiengoarekin (Orereta/Errenteria EHBildu, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV) eta aurkako 7 botorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos), hau erabaki du:

El Pleno de la Corporación por mayoría de 14 votos a favor (Orereta/Errenteria EHBildu, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV) y 7 votos en contra (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos),

**E R A B A K I A**

**A C U E R D A**

**Onartzea** Orereta/Errenteria EHBildu, Errenteria IrabaziZ eta EAJ/PNVk babestutako mozio herritarra (azalpen-zatian jasota dago).

**Aprobar** la Moción ciudadana suscrita por Orereta/Errenteria EHBildu, Errenteria IrabaziZ y EAJ/PNV, que consta en la parte expositiva del presente acuerdo.

**5. Proposamena: 2017ko Ordenantza Fiskalen lehenengo aldaketa.**

**5. Propuesta: 1ª Modificación de las Ordenanzas Fiscales 2017.**

**1.4.- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga erregulatzen duen Ordenantza Fiskala**

**1.4.- Ordenanza fiscal reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras**

Ordenantza fiskala aldatzeko proposamena aurkeztu da akats zuzenketa baten ondorioz, bere eranskinean zehazten den edukiarekin.

Se ha presentado propuesta de modificación de la citada ordenanzas fiscal, como consecuencia de una rectificación de errores, con el contenido de su correspondiente anexo.

**2.2.10.- "Errenteria Musikal" musika akademiko zerbitzuak eskaintzea**

**2.2.10.- Prestación de servicios en la Academia de Música "Errenteria Musikal"**

Kudeaketa arauetan hainbat aldaketa proposatzen ditu, eta tasak egokitzen dira, bere eranskinean zehazten den edukiarekin. Tasen kopuruetan ez dira aldaketa nabarmenak aurreikusten.

Se proponen una serie de modificaciones en las normas de gestión, y adecuaciones en la tasas, **con** el contenido recogido en su anexo correspondiente. No se prevén modificaciones sustanciales en los importes de las tasas.

Txosten teknikoak eta 2017ko otsailaren 15eko Udal Kontuhartzailearen, Sanchez andrearen txostena ikusirik.

Vistos los informes técnicos y el informe de la Interventora municipal, Sra. Sánchez, de fecha 15 de febrero de 2017.

Ogasuna eta Garapen Ekonomikoa batzordeak aldeko txostena egin du 2017ko otsailaren 21ean.

Visto el informe favorable de la Comisión Informativa de Hacienda y Desarrollo Económico de fecha 21 de febrero de 2017.

Hauek mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Oyarbide andreak (EAJ/PNV) euskaraz adierazi du ez daudela ados zenbait punturekin, adibidez, matrikula-erreserba egin eta inongo kasutan ez itzultzearekin. Iruditzen zaie gutxienez matrikula itzultzen den kasuetan justifikatuta itzuli beharko litzatekeela. Horregatik, abstenitu egingo dira.

* Interviene en euskera la Sra. Oyarbide (EAJ/PNV) manifestando que no están de acuerdo con algunas de las modificaciones que se proponen. Por ejemplo, con la reserva de la matrícula, que no se devolverá en ningún caso. Les parece que como mínimo, igual que se hace en el caso de la matrícula, en los mismos casos justificados se debiera devolver. Por ello su voto será la abstención.

* López de Echezarreta andreak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du aipatu nahi dituela Dantza eta Musika eskolako hobarietan planteatu dituzten aldaketak eta ondoren

* Interviene la Sra. López de Echezarreta (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando en euskera que quiere comentar las propuestas que han planteado en cuanto a las bonificaciones en las



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

EAJko bozeramaileari adieraziko diola zein den bere iritzia. Buelta handiak eman dizkiete 2017-2018 ikasturteko ordenantzei, testuan aldaketa handiak egin dira antolakuntzan, forman, etab., baina orokorrean, datu ekonomikoei dagokienez, tasak izoztu egin dira. Egia da matrikulazio-sistema aldatu dutela eta hortik datorrela aurrematrikula ordaintzearen ideia, eta hobarietan progresibitate oso handia planteatu dute, eta iruditzen zaio hori dela gehien nabarmendu beharko luketena. Hobariei dagokienez, lau hobari dira nagusiki; orain arte bi zeuden eta orain beste bi berri sartu dituzte. Alde batetik, oinarrizko errenta edo larrialdiko laguntzak jasotzen dituzten pertsonek % 100eko hobaria izango dute, beraz, musika- eta dantza-eskolan doan egin ahal izango dituzte beren ikasketak. Uste dute oso garrantzitsua dela segur aski gaur egun eskolara maila ekonomiko altuagoko jendea etortzen delako eta uste dutelako oinarrizko eskubide bat dela eta jende guztiak eduki behar duela eskubidea musika- eta dantza-eskolara etortzeko. Beste alde batetik, mantendu dituzte orain arte zeuden hobariak pertsona bateko familietan urtean 10.000 eurotik beherako diru-sarrerak dauzkatenentzat eta 14.000 eurotik beherako sarrerak dituztenentzat, baina % 50etik % 65era igo dute 10.000 eurotik beherakoentzat, eta % 5etik % 15era 14.000 eurotik beherakoentzat. Bestetik, helburu guztiz desberdinarekin, kontrabaxua, baxu elektrikoa, tuba edo bonbardinoa ikasi nahi duten ikasleek irakasgai hori dohainik izango dute. Kasu honetan helburua ez da hainbeste ekonomikoki zailtasunak eduki ditzaketen horiek eskolara ekartzea, baizik eskola batean talde musikalek nahitaez behar dituzten instrumentu horiek potentziatzea. Bestalde, Errenteria Musikalek herriko beste elkarteekin

